

## Ekainak 12: Kontra-Europaren garraisia

Kronika ezaguna da. EEEko gobernuburuak eta hainbat ministrari bildu Madriler, Espainiako Erreinuaren sarrerako hitzarmena izenpetzeko. Ongietorriak, protokolo adeitsuak, hitzaldi sonatuak: sinaduren prozesioa. Palacio de Oriente Madrilgoan burutu zen guzti hori. Baikortasuna!

Egun berean hiru atentatu larri: bi Madril... Hiru hil. Bestera Portugaleten: hildako bat. Militarrei eta poliziei eraso zaie. Handia izan da eskandalua eta haserrea politikarien artean: Publizitatea bilatzen dutela atentatugileek, inolako helburu politikorik ez dutela, inboluzio-indarrak iratzartzen ari direla... Terrorismoaren kontrako borrokan nazioarteko laguntza eskatu da.

Batzuek Europa «berria»ren epopeia kantatzen zuten bitartean, besteek drama ikaragarria jokatu dute guztion aurrean. Kontrapuntu dramatiko bat benetan, zeremonia ospatuari. Eta badakigu: bizidunontzat drama dena, hildakoentzat tragedia hutsa dela.

Hitzarmena janzteko erabili dituzten epitetoen «antiepitetoak» erabili dituzte atentatuak larrutzeko: aurrerapena/inboluzioa, modernotasuna/historiari eutsi nahia, bakea/terrorismoa, unibertsaltasuna/itxitasuna... Hitz handiak, hitz borobilak. Hitz bidez aupatu dute hitzarmenaren gloria, hitzen bidez gaitzetsi dute atentatuen miseria. Data gogoangarri bateko eguna eta gaua bereizi nahi izan dituzte; baina ez dago zalantzarik egunargia eta gauiluna bata bestearen ondoren datozela eta bereizezinak direla, argia eta itzala bereizezinak diren legez.

Felipe González-ek *fedea* eta *esperantza* aldarrikatu ditu bere hitzaldiaren amaieran. Baina bertute horiek teologikoak dira politikoak baino gehiago. Egoera gordina azaldu eta konponbideak urratzea dagokio politikari, eta ez hitz teologiko ederrez estaltzea.

Azterketa politiko gordin horren gakoa, berriz, egun horretan berean Palacio de Oriente Madrilgoan eraturako markoan —estatuen Europa— eta han bertan jaulkitako esaldi hauetan dagoela uste dut: «España el primer Estado-Nación de Europa» goraipatuz, eta «emociones nacionalistas»tzat gutxietsiz nazio ukatuen Europa. Estatu-Nazioen Europa aurrera joango bada, Nazio-Herriak ukatuz eta deseginez, beldur izatekoa da, egunik gloriosoenak ere dramaz eta tragediaz odolduko direla gure Europa eta gure Euskal Herri honetan.

Europako Estatuetakoko gobernuburuek jo nahi izan zuten sinfoniaren barruan Kontra-Europako Herri ukatuek beren garrisia bota zuten: horra ekainaren 12ko deskontzertua. ■ *Paulo Agirrebaltzategi*.

## Euskararen berri onak

Poza ematen du euskarari buruzko berri on baten albiste emateak, norbaitek bestelakorik uste badu ere. Kritika egiteak ez du itsu bihurtzen.

Euskarazko albiste-agentzia bat eraikitzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Ez dut berri zehatzagorik, egia esan. Euskarazko egunkariaren aurrepauso bezala izango dela zabaldu da. Poztekoa da. Poztekoa da, baita, Martin Ugaldereen manupean dagoela hori martxan jartzeko agindua jakitea ere.

Hogei milioiko presupostua du agenziak. Ez dakit aski, gehiegi ala gutxiegi den. Segun zer egin nahi den. Ez dut uste itzulpen-agentzia izango denik. Euskal kazetaritzaren estrategia zabalago eta luzeago batean kokatu beharko da delako agentzia hori. Euskal kazetaritzaren desarroiloaren frenu ez baino dinamizatzaile izan beharko luke, euskal kazetari-taldea ez mantentzeko prentsa-enpresei aitzakiarik emateke. Euskal kazetaritza praktikoaren eskola txiki bat muntatu beharko litzatekeela horren inguruan, esango nuke.

Esan bezala, albiste-agentzia hori euskal kazetaritzaren estrategia orokor baten koordenadatan pentsatu beharko litzateke. Eta ezinbestekoa da horretarako euskal kazetarien lankide-